



Ugartebidea (-a) etxebizitza

Aldakerak:

Ahozkoa:



Berriz Irudian

Desagertuta dagoen baserri honen gaineko aipuak Bizkaiko su-errolan ageri dira XVIII. mende hasieran: *Ugarte Uidea* (1704). Beste hainbat baserri izenekin gertatu izan den moduan, honek ere aldaera gutxi ezagutu ditu mendeetan zehar, XIX. mendeko aipamen bi izan ezik. *Ugartebideás* (1859, BUA, Nmcr) eta *Ugartebidea* (1867, JCR 2908/008) beste guztietan v letraz idatzirik agertzen da, *Ugartevidea* (1825, PE/1825) eta *Ugartevidea* (1910, BUA, RU) izanik horren adibide. 1967ko Udal-errolan *Ugartebide* aurkitzen dugu. Dena den, aipatutako 1859ko izendegian *Ugartebideás* agertzen da, horrek esan gura du urte horretarako *Ugartebidetxebarria* (**Ikus Ugartebidetxebarria**) baserria eraikita ongoing zela. Berriztarren ar-

tean, *Eltxuena* moduan ere ezagutu da, eta ahozko formarik erabilienak, hain zuzen ere, *Uhertebide* eta *Eltxuena* dira.

Jausita dagoen etxea da, sasoi desberdinetako atalekin. Hala ere, oraindik antzeman daitezke bere ezaugarriak. Beheko solairua harlanduzkoa zuen eta aldamenean atarteak zeukan, zurezko dintelduna. Lehengo solairua eta ganbarakoa, berriz, egurrezko egituraz armatua, leihoak bezala. Teilatua bi isuritakoa zuen. Leihoburu bateko inskripzioak egin zeneko data eta egilearen izena argituko dizkigu. Gurutzearen babesean dio: "ESTA CASA IÇO JUAN DE SSOLA ALDE / LOINBE AÑO DE 1702".

toponimia

Ugarte hitz arrunta da eta ibaietan dauden irlak izendatzeaz gain bi erreken arteko gunea ere izan daiteke. Hitz honen osagaiak ur eta arte dira. Toponimo honetan Ugarte leku izenaz gain bide eta artikulua ditugu. Euskal toponimia jatorrean bide bat nora zihoan adierazteko oso arrunta izan da izen+bide egitura eta urriagoa izan da izen+ko+bide egitura. Hala ere, Nafarroa eta Arabako eskualde zabal batean antzina izen+ra+bide egitura erabiltzen zen: Miñaugutxirabidea toponimoan ikus daitekeen bezala.